PORRONTXO JAIAK

2005

IRAILAK 8tik 18ra

I
Badugu hemen jai berri
ez gara batere elberri
egiatarrok deitzen gaituzte
bizi gara ondean hilherri.

II
Gaia dugu gaur susurra
lanerako behar atzurra
baina usaintzeko non dago jaia
kendu behar da beldurra.

III
Ahazturik dago birginia
(e)ta beste piliobat grina
hemen gaudenok, hau antolatzen,
benetan gerala fina.

IV
Ez daukagu orain santurik
ez dugu edango urik
baina txintxoak bagara eta
ez al dugu txarra itxuriko?

V
Gurekin hasi parrezka
lehen genbilen bezain eska
baina ordaintzeko hemengo gauzak
ez egin gero ihezka

VI
Arazo dugu bizpahiru
biharana itsuena diru
horregatikan jendearengana
ibili gara sokorru

VII
Baina hor dezute jaiak
zeuk jarri orain mamiak
hemendikan han konseju bakar,
ez egin aimalia!.

VIII
Badugu orduan porrontxo
esateko lasai kontxo
santurik gabe ondo pasa behar
ez dugu egingo errespontso

IX
Badugu ere janari eta ona ere edari
baina buruan oroitzen dugu
Egiako burrukalari.

X
Bukatu behar da kopla
eta moduz nahiko apala
bakoitzak ongi pasa dezagun
(e)ta onak e(d)uki dezala.

AGURRA

Euskal Herrian badugu ohitura jaietako egitarauari hasiera honela emateko: beste behin ere, Urtero bezala, baina hau ez da izango gure kasua.
Irailaren erdikaldean auzoan izango ditugun jaiek agur ezberdina izango dute, berauek ere ezberdinak izango direlako. Erderaz esango genukeen bezala jai hauek "*con narices y por narices*" izango dira. Nahitanahiezkoak, betiakoak galdu egin direlako: Koruko amarenak irailaren 8an, Baztaneko San Miguelak...; eta uztailean amaitzen zirelako gure jaietako aukera guztiak.

Egoera nahiko tristea izaki lagun batzuk elkartu eta auzoak Irailean jaiak mantendu behar zituela erabaki genuen.
Ez dakigu nolakoak izango diren baina nahitanahiezkoak seguru "*por narices*", hau izango bait da euren oinarria "*con narices y por narices*".

Normalean gure inguruko jaien oinarria santuak izaten diren arren, esan beharra dago santua aitzaki soil batean geratzen dela kasu guztietan. Gure jaiak ezberdinak direnez, ez sakralizatutako oinarri bat bilatu nahi izan dugu, horregatik sudurraren ideia.

Gure ustetan Euskal Herrian ez bat da behar den bezala goraipatu gure artean hain present den sudurra. Denek dugulako sudurra, eta berriro ere erdera erabiliz "*también tiene narices*" gure herriak pairatutako errepresio, okupazio poliziala, torturak.

Hau guztia izango da beraz, guztion artean burutuko ditugun jaien oinarria; nahiz eta datorren urteko agurraren hasiera ìbeste behin ereî izando den

(*)Hau orain dela 25 urte egitarauan agertu zen agurra da.

AZKEN OHARRA: Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egitarau honez kanpo gerta litezkeen ezbehar edo istripuen ardurarik.

NOTA: La organización no se hace responsable de los percances que pudieran ocurrir al margen de los actos organizados.

FESTA BATZORDEAK ESKERRAK EMATEN DIZKIE PORRONTXO JAI HAUEN EGITARAUA EGITEN LAGUNDU DUTEN DENDARI ETA AUZOKIDE GUZTIEI

LA COMISIÓN DE FIESTAS AGRADECE A LOS VECINOS Y COMERCIANTES DEL BARRIO QUE CON SU AYUDA HAN COLABORADO EN LA REALIZACIÓN DE ESTE PROGRAMA DE FIESTAS

OHARRA: JAIETAN AUZOKIDEAK ANIMATZEN DITUGU TERRAZAK APAIN DITZATEN, IKURRIÑA, KOLOREZKO GLOBOEKIN EDO NAHI DUTEN BEZALA.

NOTA: ANIMAMOS A LOS VECINOS A QUE COLABOREN EN FIESTAS ADORNANDO LOS BALCONES CON LA IKURRIÑA, CON GLOBOS DE COLORES O COMO MEJOR SE LES OCURRA.

LARUNBATA,10
SAGARDO EGUNA

10:30 Esku-pilotako eta palako finalerdiak.
11:00 Egiatik kalejira, Amets-eneako malabareekin eta AMAIA, HODEI eta HAIZEA trikitilariekin. Buruhandien, erraldoien eta Porrontxo eta Porrontxaren laguntzarekin.
12:00 Sagardo dastaketa Plaza Haundin.
14:00 Bazkaria Plaza Haundin.
Bazkarian, bi pertsonentzako asteburu bat landetxe batean zozketatuko da.
Ondoren **bertso saioa** OIHANA BARTRA eta JON MARTIN bertsolariekin, **auzoko abeslariak** eta **txalaparta**.
17:00 Olinpiadak koadrilentzat Plaza Haundin.
20:00 TREBESKA dantza taldearen **emanaldia** Plaza Haundin.

IGANDEA,11

10:30 Porrontxo VIII. kros txapelketa plaza berritik, egia, atotxa, epaitegian buelta, mundaiz eskolako sarreran buelta, egia, ametzagaña, maria reinatik karmengo amara eta bukatzen da plaza berrin. Bi buelta ematen dira.

ASTEAZKENA, 14

19:00 KANTAURI Txaranga.
20:00 Suziria.
20:02 Koadrilen igoera, mozorrotuta eta orgak apainduta, KANTAURI eta LAGUNAK txarangaz lagunduta. *Xaguak* "subterraneo"-tik aterako dira.
22:00 Dantzaldia TRAKETS taldearekin plaza handin.
Dantzaldiaren atsedenaldian:
banana dantza eta aulkien jokoa
00:00 JATORRENAK Txaranga.

OSTEGUNA, 15
HAURREN EGUNA

17:00 Buruhandi eta erraldoiak,INCANSABLES txarangarekin.
17:30 Haur jaitsiera Karmengo Amatik ,INCANSABLES txarangaz lagunduta.
18:00 Haurren pilotako finalak.
18:30 PIRRITX ETA PORROTX **pailazoak** Plaza Haundin.
19:00 Jokoa: Trianeren jaitsiera Karmengo Ama kaletik.
21:00 LAGUNAK Txaranga.
21:00 Porrontxoetako bideo muntaiaren emanaldia Plaza Haundin.afari-merienda (koadrila bakoitzak berea).
22:30 Dantzaldia LAIOTZ taldearekin.
Dantzaldiaren atsedenaldian:
puxikaren jokoa eta soka-saltoa.
23:30 Batukada TAUPADA taldearekin.
00:00 JATORRENAK Txaranga.

OSTIRALA, 16
GAZTE EGUNA

11:00 Hamaiketakoa eta **Egia Kantari** taldea Plaza Haundin.
12:00 KIKI, KOKO eta MOKO **pailazoak** Plaza Haundin, Donostia Kulturak antolatuta
12:02 Trikitixa auzotik Amaia Haizea eta Hodeiekin.
17:00~20:00 12-17 urtekoentzat FUTBOLIN ERRALDOIA, BUNGEN BULL, musikaz giroturik, Maria Reina ikastetxean. Antolatzaileak: Egiako Gazte Lekua, Gazteri Saila eta Donostia Kultura.
17:01 Aldakonean, zaharren egoitzan, Amaia, Hodei eta Haizea trikitilariak.
17:03~20:00 Merkatu txikia eta EGIA BIZIRIK Auzo elkarteak antolatutako **argazki erakusketa** Plaza Gorrin, trikitilariek lagunduta.
17:30 Buruhandi eta erraldoiak, INCANSABLES txarangaz lagunduta.

18:00 Rokodromoa eta **Argazki erakusketa** XABIER MENDI TALDEAK antolatuta Plaza Haundin.
18:30 Haurrentzat KULKI taldearen **Baserri Jokoak** Plaza Berrin, Donostia Kulturak antolatuta.
19:00 Flotagailu, hegats eta betaurrekoekin lasterketa eta sagarraren jokoa Tejerian.
20:00 BALDARRAK Txaranga.
21:30 Haurrentzako Zezensuzkoa Tejerian.
23:00 Kontzertua: GATAZKA, DESMASKARADAS, CAPTAIN NEMO Plaza Haundin.
Plaza Haundin kontzertuaren atsedenaldietan jokoak: **sokatira eta zaku lasterketa.**
23:00 Txosnaguneko oholtzan dantzaldia TRIKIZIO taldearekin.
23:30 JATORRENAK Txaranga.
01:00 LAGUNAK Txaranga.
05:05 Txokolate jatea txosnen gunean.

LARUNBATA, 17
ELKARTASUN EGUNA

08:00 JATORRENAK Txaranga.
10:00 Haurrentzako jokoak AMALUR taldearekin Gladysenean Donostia Kulturak antolatuta.
12:00 Triki poteoa HAIZEA AMAIA eta HODEI trikitilariekin.
17:00 Buruhandi eta Erraldoiak, LAGUNAK txarangaz lagunduta.
17:30 Haurrentzako tailerrak: papiroflexia, tatuaiak, loreak...Plaza Berrin
19:00 Kale Antzerkia TRAPU ZARRAK taldearekin Tejeria kalean, Donostia Kulturak antolatuta.
20:30 Haurrentzako zezensuzkoa.
21:00 Koadrilen afaria, kafea eta koparekin Tejeria kalean.
22:30 KANTAURI Txaranga.
23:00 Dantzaldia IZOTZ taldearekin Plaza Haundin.
00:30 Kalejira auzoko zanpantzarrekin eta Porrontxo eta Porrontxarekin.Ondoren **Aurresku Herrikoia.**
01:30 Txosnaguneko oholtzan **DJ FESTA** eta SBK **Hip hop** taldea.

01:00 KANTAURI Txaranga.
02:00 BALDARRAK Txaranga.
05:00 **Baratxuri zopa** txosnagunean.

IGANDEA, 18

08:30 INCANSABLES Txaranga.
10:00 **Esku-pilota eta pala txapelketen finalak** AMAIA, HODEI eta HAIZEA trikitilariekin.
12:00 **Jotak**, NAVARRERIAS taldearekin, Plaza Haundin
12:02 **Sagardo dastatzea** Plaza Haundin.
14:30 **Bazkari herrikoia** Plaza Gorrin.
Donosti-Gain, Ur-zaleak eta Arrano elkarteen laguntzarekin.
17:00 **Herri kirolak** ERNESTO EPELDE "BIHURRI" eta bere taldearekin, eta Laia lasterketa. Baita ere koadrilen arteko probak Plaza Haundin.
19:00 **Sardina jatea** Plaza Haundin.
20:00 **Erromeria** JOSEBA TAPIArekin Plaza Haundin.
21:00 INCANSABLES Txaranga.
22:00 **Koadrilen kalejira** auzoan zehar INCANSABLES txaranga lagunduta.
23:00 Jaien bukaera: Azken traka eta Porrontxinoaren erreketa.

EZ APARKATU ~ NO APARCAR

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue **TEJERIA kaleko goiko aldea** ***ostiral arratsaldetik larunbata gaua arte*** (Koadrilen afaria dela eta) ez aparkatzek. Mila esker.

NOTA: Se solicita la colaboración de l@s vecin@s propietari@s de los coches para que en la **parte al ta de la calle TEJERIA** no aparquen desde ***el viernes a la tarde hasta el sábado a la noche*** (por la cena de cuadrillas).Muchas gracias.

25.
PORRONTXO
JAIAK 2005
IRAILAK
EGIAn 8 -18

Porrontxo jaiak 2005
H_2O
25.
Irailak 8-tik 18-ra
EGIA